

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko zerga egutegia

Jendaurrean jartzen da ireki dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordainketak egiteko aldia.

I. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2020ko irailaren 1etik azaroaren 1era.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2020ko irailaren 16an egingo du.

B) Betearazte aldia: Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian sarrera egiteko epea amitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan eta uztailearen 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, sortzen diren errekargu eta berandutze interesekin.

II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko epean baino ezin izango dute ordaindu, Kutxabanken eta banku transferentzia bidez. Horretarako, aldezturik, ordainagiria jaso beharko dute udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.

Udaletxera joan nahi duenak, COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko du aldezturik, 945365088 telefonora deituta edo aarminon@ayto.araba.eus posta elektronikora idatzita.

III. GOMENDIOAK

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Armiñongo Udalarari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Armiñon, 2020ko uztailearen 15a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ